

Hernanik kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 19a, igandea::: 4.618 zk. ::: www.kronika.net

50. ADARRAGA MEMORIALA:
250 neska-mutil korrika,
adarragatarren omenez /4-5



Gazte lokalen inguruko prozesua martxan jarriko du Udalak

Parte hartze prozesu bat jarriko du martxan. Hausnarketa egin nahi da eta elkarbizitza protokoloa adostu. Aurreneko saioa asteazkenean izango da.

GAZTE lokalen fenomeno asko zabaldu da Hernanin eta Udalak erabaki du prozesu partehartzaile bat martxan jartzea. Hausnarketa egin nahi da eta elkarbizitza oinarri hartuta, alde guztien arteko protokoloa adostu: gazteak, bizilagunak, jabeak... Parte hartze prozesua bost saiotan banatuko dute eta aurrenekoa asteazkenean izango da. Saio guztiak Biterin izango dira, 18:30etan. /7

◆ ERREMONTA

Urriza txapeldun, Masterrean

Banakako Masterreko txapeldun tituluari eutsi dio Urrizak, atzo 30-28 irabazita San Migueli. /3

◆ FUTBOLA

Bi talde nagusiek gaur jokatu dute

Erregional Ohorezko Mailako taldeak Beti Gazteren aurka jokatu du gaur 16:30etan, Lesakan. Emakumezkoen Euskal Ligako taldeak, berri, etxean jokatu du. Zarautz izango du aurrez aurre, 12:00etatik aurrera. /3

◆ ERRUGBIA

Getxori irabazi egin zion atzo Hernanik

Hernanik lagunarteko partidua jokatu zuen atzo Getxoren aurka eta 41-12 nagusitu zitzaion. /3

❖ 'GOZATUA HERNANIN'

Taldean egiteko plan ederra

Gipuzkoako Parketxe Sareak eskaintza berri bat prestatu du Larre-Gain sagardotegiarekin: Mendi ibilaldi gidatua eta otordua. /6

GAUR KRONIKAN

LABURRAK: Tabernetako Bertsolari Txapelketa, hitzaldiak, 'Joxean's hil eben'... /2

KIROLAK: Mendiriz Mendi, pala ikastaroa... /3

Eskelak /3

Erakusketa /8



Besteak beste, alderdi eta legegintzaldi desberdinetako hainbat alkate eta zinegotzi elkartu ziren atzo, udaletxeko Pleno Aretoan.

Bat eginda, epaiketa politikoen aurka

EUSKAL Herrian izaten ari diren eta etorriko diren makro-epaiketen aurrean, Hernaniko legegintzaldi eta alderdi desberdinetako hainbat alkate eta zinegotzi elkartu ziren atzo udaletxeko Pleno Aretoan. Idatzi bat adostu eta onartu zuten, Libre Manifestuarekin bat eginez. Besteak beste, eskatzen dute epaiketa politikoak gelditzea eta elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezartzea. /2

SAN FRANCISCO - LAS VEGAS Otsailaren 20tik 27ra Madriltik hegaldia + 4 gau San Francisco + 3 gau Las Vegas 3* Hoteletan	1115⁰⁰⁰ €	PRAGA Apirilaren 17tik 21era Bilbotik hegaldia + 4 gau 4* Hotelean gosaria barne	639⁰⁰⁰ €
PARIS - HERBEHEREAK Otsailaren 10 eta 24an Bilbotik hegaldia + 3 gau Paris + gau 1 Bruselas + 2 gau Amsterdam 3* Hoteletan gosaria barne	900⁰⁰⁰ €	MALLORCA Apirilaren 20tik 27ra Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean pentxo erdian	285⁰⁰⁰ €
AMSTERDAM Martxoaren 13tik 16ra Bilbotik hegaldia + 3 gau 3* Hotelean gosaria barne	325⁰⁰⁰ €	LANZAROTE Apirilaren 20tik 27ra Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* apartamentuan	596⁰⁰⁰ €
FUERTEVENTURA Apirilaren 1etik 8ra Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean pentxo erdian	345⁰⁰⁰ €	SALOU Apirilaren 21etik 27ra 6 gau 3* Hotelean pentxo erdian, 2 heldu + 2 ume	474⁰⁰⁰ €
SANTILLANA DE MAR Apirilaren 15a arte 3 gau 4* Hotelean pentxo erdian + 2 tratamendu	202⁰⁰⁰ €		
FORMENTERA Maiatzaren 16tik 23ra Bilbotik hegaldia + ferry Ibiza-Formentera + 7 gau apartamentuan	463⁰⁰⁰ €		
SANTORINI Ekainaren 28tik Uztailaren 6ra Bilbotik hegaldia + 8 gau 3* Hotelean gosaria barne	528⁰⁰⁰ €		
ASTE SANTUAN			
LONDRES Apirilaren 16tik 20ra Bilbotik hegaldia + 4 gau 3* Hotelean gosaria barne	495⁰⁰⁰ €		

KRUIEROAK 2014
DESKONTU BEREZIAK
Aukera gehiago!
www.bidalibila.com

HERNANI
BIDATAK
Urtaria, 5
943 33 00 49

www.hernanibidalak.com



Idatzia adostu eta onartu ostean, kontzentrazioa egin zuten Plazan. Herritar ugari egin zuen bat deialdiarekin.

«Ez daitezela epaiketa politiko gehiago egin»

Hernaniko legegintzaldi eta alderdi desberdinetako hainbat alkate eta zinegotzik idatzi bat adostu zuten atzo, Libre Manifestuarekin bat eginez. Besteak beste, biltzen du: epaiketa politikoak gelditzea, askatasun politikorako eskubideak errespetatzea, elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezartzea... Kontzentrazioa egin zuten ondoren.

UDALETXEKO Pleno Aretoan jendetza bildu zen atzo. Bertan, besteak beste, Hernaniko legegintzaldi eta alderdi desberdinetako hainbat alkate eta zinegotzik egin zuten bat. Epaiketa politikoei aurre egiteko elkartu ziren, Libre dinamikaren barruan.

Bertan, idatzi bat adostu eta onartu zuten. Eta azaldu zuten, Libre Manifestuaren 5 puntuekin bat egiten dutela; hau da: «Ez daitezela epaiketa politiko gehiago egin; Eskandaluzko instrukzio bidegabean oinarritutako epaiketa guztiak artxibatu daite-

zela; Prozedura judicial guztietatik etsaiaren zigor zuzenbidearen aplikazioa desagertu dadila; Aniztasun politikoa eta elkartzeko, adierazpen nahiz askatasun politikorako oinarritzko eskubideak errespetatu daitezela; eta Elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezarri ditzagula».

Horrez gain, auzipetu guztiei elkartasuna adierazi zieten eta hernaniar guztiei deialdia luzatu zieten, Libre dinamikaren barruan antolatzen diren ekimenetan parte hartzeko.

Bi makro-epaiketa martxan, eta Juanpe Plaza eta Garin taberna tartean

Gogorarazi zuten urteetan eman direla makro-epaiketak eta egun, bi epaiketa daudela martxan: gazteena eta *Herriko Tabernak* deiturikoa. Tartean, Juanpe Plaza hernaniarra eta Garin taberna daudela nabarmendu zuten. «Epaiketa hauekin, aniztasun politikoa ezabatzeko ahalegin garbia ikusten dugu». Eta gaineratu zuten: «Garai berria zabaltzeko Euskal Herriak agertu duen erabakiari eraso egiten diete, konponbide baketsua blokeatu asmoz». ■



Libre Manifestua sinatzen.

❖ TABERNETAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

20garren txapela jokoan, gaur

Tabernetako Bertsolarien Txapelketa jokatu da gaur, 19:00etan, Garinen. Aurten berezia dute, 20 urte pasa baitira hutsik egin gabe. Gutxienez 11 bertsolari ariko dira, gaur azaldu litezkeenak kontatu gabe: Oier, Oxan, Alkorta, Aingeru eta Haritz, Otxoto, Iraitz, Xapo, Joseba, Gorkita eta Iñigo. Gai jartzen, Arnaitz Lasarte, eta epaile lanetan: Peruarena, Casado, Zapi eta Muñoa. ■

❖ UDALA

Floridako tunela itxita, bihartik

Bihar goizeko 07:00etatik aurrera, Florida kaleko trenbide azpiko tunela itxi egingo dute, oinezkoen eta ibilgailuen pasabidea arautzeko semaforoak jartzeko lanak hasiko baitira. Lanek irauten duten bitartean, hau da, urtarrilaren 24ra arte, itxita egongo da tunela. ■

❖ 3. ADINA 3. MUNDURAKO ONGD

Hezkuntza teknikoak Guatemalan duen eraginaz ariko dira bihar

Hernaniko Udalak, 3. Adina 3. Mundurako ONGD elkartearen bidez, laguntza ematen die Guatemalako Fe y

❖ FILM LABURRAK

'Joxean's hil eben' aurkeztu dute

Joxean's hil eben film laburra aurkeztu zuten ostiralean Biterin, lagunartean. Besteak beste, Beñat Iturrioz hemaniarrak zuzendutako pelikula da, *Ataun of the dead* filmaren jarraipena. Ostiralekoa aurre-estrenaldia izan zen. Pelikulan 180 lagun inguruk hartu dute parte, tartean hernaniar ugari, eta lan taldeari erakusteko antolatu zuten emanaldia. Hemen-dik aurrera, herriz herri ibiltzeko asmoa dute. Aurreko pelikulan zonbi karlistak azaltzen baziren, oraingoan banpiro jeltzaleak ere izango dira eta Agirre lehendakaria berpiztuko dute. ■

Alegriaren proiektuei. Azken proiektuen berri emango dute bihar 18:30etan, Biterin. Hezkuntza teknikoak dituen onurak azalduko dituzte. ■

❖ SAN JOAN KONPARTSA

Saria jasotzeko, bi egun

Santo Tomas Eguneko errifa saritua 7.857 zenbakia izan da eta irabazleak asteartea baino lehen deitu behar du telefono honetara: 695 753 138. ■

Batzarra Transpakarren, asteazkenean

San Joan Konpartsak bilera egingo du asteazkenean



19:00etan, Transpakarren. Gaiak: San Joanak, Argentina eta Inauteriak. ■

❖ LAU HAIZETARA GOGOAN

Hernani eta altxamendu militar faxista hizketagai, asteazkenean

Lau Haizetara Gogoan plataformak hitzaldia antolatu du asteazkenean, 19:30etan Biterin. Alde batetik, Txuso Gomez hernaniarrak hartuko du hitza. Gaia: *Hernani y el alzamiento militar fascista*. Bestetik, Gotzon Garmendiak hitz egingo du: *Eusko Jaurritzairen bake eta elkarbizitza plana eta oroimen historikoa*. ■

ERREMONTEA - BANAKAKO MASTERRA

Ederki sufrituta eutsi dio txapeldun tituluari Urrizak

Urrizak 30-28 irabazi zion atzo San Migueli Banakako Masterreko finala. Azken honekin, banakako 4 txapela jantzi ditu jarraian.

JAVIER Urrizak lortu du Banakako Masterreko txapeldun tituluari eustea, baina ederki sufrituta. 30-28 irabazi zion atzo finala Julen San Migueli eta orain arte jokatu duen finalik zailena izan zen. Azken honekin, Urrizak, banakako txapelketetako azken lau txapelak jantzi ditu: Kutxa Torneoko azken biak eta Masterreko beste biak.

San Miguel ezustekoa emateko zorian

Errebantxa kutsuko finala izan zen atzokoa. Izan ere, hirugarren aldia zen atzo, banakako txapelketa bateko finalean aurrez aurre zirela Urriza eta San Miguel. Eta aurreko bietan bezala, Urriza nagusitu zen. Dena dela, San Miguelek aurrekoetan baino gehiago estutu zuen eta ezustekoa emateko zorian ere izan zen Doneztebeko atzelaria. 15-20, aurretik izan zen. Hala ere, Iruñeako aurrelariak ondo erantzun zuen eta partiduari buelta ematea lortu zuen, 27-22ra jarritz. San Miguel hobeto ari zen jokatzeko, gogor ematen zion pelotari eta ondo asmatzen zuen, baina hainbat huts egin zituen eta ez zituen



San Miguel eta Urriza, partiduen ostean.

bukatu hainbat tanto. Horren aurrean, Urriza hazi egin zen. Aukera aprobetxatzen jakin zuen eta partidua bukatu zuen. Hutsegiteek erabaki zuten lehia. Urrizak lau egin zituen denera eta San Miguelek bederatzi. Bi, sakez gainera.

Partidua 27-22an erabakita zegoela zirudien, baina San Miguelek ez zuen etsi. Berriz sartu zen jokoan eta 28-27 jarri zuen markagailua. 29-

28ra ere jarri ziren, baina dejada batekin bukatu zuen partidua Urrizak.

Kotetok adina titulu

Finala emozioz betetakoa izan zen bukaerara arte eta ikusleek eskertu zuten. Bi erremontista haundiren arteko lehiaz gozatzeko aukera izan zuten. Azken txapela honekin, Koteto Ezkurak adina titulu ditu Urrizak, Masterretan. ||

ERRUGBIA - OHOREZKO MAILA

Ligari berriz ekin eta Santboianari irabazteko prest da Hernani

41-12 irabazi zion atzo Hernanik Getxori, lagunarteko partidua. Bigarren zatian, normalean jokatzen ez duten jokalariek atera ziren zelaira.

LAGUNARTEKO partidua jokatu zuten atzo Hernanik eta Getxok eta trikoloreek 41-12 irabazi zuten. Lehenengo zatian seriotasunez jokatu zuten bi taldeek eta etxekoak gehiago izan ziren. Bigarren zatian, normalean jokatzen ez duten jokalariek zelairatu zituzten bi taldeek eta probak egiteko balio izan ziren.

Hernanik datorren igandean ekingo dio berriz ligari. Santboiana izango du aurrez aurre, etxetik kanpo, eta garaipean lortzeko prest dagoela erakutsi zuen atzo, nahiz eta denboraldi osorako baja garrantzitsuak izan: Oier edota Iñaki Otxotorena. ||



Lagunarteko partidua izan arren, serio jokatu zuten bi taldeek.

FUTBOLA - ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

Beti Gazteri irabazi eta sailkapenean gora egiteko aukera, gaur

Lesakan jokatuko du gaur Hernanik Beti Gazteren aurka. 16:30etan izango da.

BETI Gazte taldearen aurka jokatuko du gaur Hernanik. Etxetik kanpo, Lesakako Mastegi zelaian neurtuko dira, 16:30etatik aurrera.

Azken partiduetan erakutsitako jokoari jarraipena emateko asmoa dute txuriberdeek. Urte bukaera eta hasiera oso onak izan dituzte, denboraldi hasierako porrotak atzean utziz. Eta azken partiduan liderraren aurka galdu egin bazuten ere, oso partidua serioa eta txukuna jokatu zuten. Hori horrela, 3 punturekin itzultzeko asmoa dute Hernanira. Gainera, sailkapenean gora egiteko aukera izango luke-

te. Izan ere, lesakarrak 8garren postuan daude; hernaniarrak, berriz, 12garrenean, eta 3 puntuko alde besterik ez dute.

Emakumezkoen taldeak, aurkari zuzena etxean

Emakumezkoen Euskal Liga taldeak Zarautzen aurka jokatuko du gaur. Aurkari zuzena izango dute txuriberdeek. Zarautzarrak 8garren daude eta hernaniarrak 9garren, 2 puntu gutxiagorekin. Azkeneko partiduetan ez dute emaitza onik lortu etxeko neskek eta horri buelta ematen saiatuko dira. Neurketa, 12:00etan Zubipen. ||

◆ MENDIRIZ MENDI**Cauteretsera eskiatzera joateko, izen ematea zabalik**

Eskiatzera joateko plana antolatu du Mendiriz Mendi elkarteak.

Cauteretsera joango dira urtarrilaren 25-26ko asteburuan. Bertan, iraupen eskia, eski alpinoa eta raketak egiteko aukera izango da. Lau prezio desberdin jarri dituzte adinaren eta bazkidetzaren arabera: 50, 60, 65 edo 75 euro. Izena emateko aukera izango da bihar eta ostegunean, elkartearen (Iturregi plaza), 20:00etatik 21:00etara. Izena ematerakoan, 20 euro aurreratu beharko dira. ||

◆ PALA**Otsailetik aurrera, umeentzako ikastaroa**

Umeentzako pala ikastaroa antolatu du Hernaniko Pala Taldeak eta otsailaren aurreneko astean hasiko da. Eguna eta orduak honako hauek izango dira: astearte eta ostegunetan, 16:45etatik 17:45etara. Taldea sortuz gero, ostiraletan ere izango da aukera, 17:30etan. Izena emateko, deitu egin behar da (625 033 314) edo astelehen edo asteazkenean frontoira azaldu, 20:00etan. Umearen datuak bidali behar dira (izena, adina, telefonoa eta oharrak) helbide honetara: hernanikopalistak@gmail.com. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA**Victoria Arriet Orella**

Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -

Urruzola-Arriet familiak eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2014ko urtarrilaren 19an



ADARRAGA MEMORIALA GAUR ATLETISMO PIS

Adarragatarren kirol bizirik, urteroko z

● 250 neska-mutil inguruk hartuko dute parte gaur, Adarraga Memorialean. Sei lasterketa korrituko dira, kategoriaka banatuta; proba guztiak, atletismo pistan izango dira, 11:00etan.

● 50garren edizioa da aurtengoa; Pepe Adarraga CD Hernaniko sortzailearen eta gainerako adarragatarren omenez antolatzen da.

ATLETISMOA tradizio askoko kirola da Hernanin eta kate horri eutsi nahi dio CD Hernanik; gaztetxoek atletismoarekin duten erlazioa mantendu nahi dute, eta kirolak herrian duen protagonismoa indartu. Adarraga Memorialeko korrituko da gaur atletismo pistan 50garren urtez; bada zerbaite. Pepe Adarraga zenaren omenez hasi ziren antolatzen, bera izan baitzen CD Hernani sortu zuenetako bat. Baina memorialeko adarragatar guztiak izan ohi ditu gogotan, gutxi izan baitira herri honetan, kirolari hain lotuta bizi izan diren familiak.

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketarako puntuagarria

Ehundaka neska-mutilek hartzen dute parte urtero, atletismoaren festa honetan. Antolatzaileen arabera, Gipuzkoa osotik etorriko dira gaur ere; 250 gaztetxo inguru espero dira Antziolako atletismo pistan. Mailaka eta sexuaren arabera banatu dituzte frogak eta guztiek puntuatuko dute Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketarako.

Goizeko 11:00etan hasiko da gaurko saioa, eta ordulaurdeneko marjenarekin jokatu da froga bakoitza. Alebin neskek lehiatuko dira lehendabizi, zeinek 1464 metro azkarra egin. Atzetik, mutilak, distantzia luzexegoarekin: 2065 metro. Infantil nesken txanda izango da ostera, 2065 metroko frogarekin; mutilek 3305 metro izango dituzte aurretik. Eta bukatzeko, benjaminak; neskek zein mutilek 890 metroko froga izango dute.

«Adarraga Memorialaren urte oparoenak 1973 eta 1977 bitartekoak izan ziren, goi mailan zebiltzan atleta asko eta asko etortzen baitziren Landareko frogatara: Mariano eta Pepe Haro, Santiago Delaparte, Carmen Valero...»

«Pepe Adarraga izan zen CD Hernaniko aurreneko presidentea»

«Kross hutsera dedikatzen, atletismoko modalitate guztiak izatera pasa zen CD Hernani, atletismo pistari esker»

1958an aurreneko aldiz

Urte oparo asko izan ditu txapelketak; kontrapuntu gisa ordea, egin ez diren urteak ere izan dira. 1958garren urtean antolatu zuen CD Hernanik kross txapelketa aurreneko aldiz, eta denbora gutxian jarri zioten Adarraga Memorialeko izena. Pepe Adarraga izan zen CD Hernaniko fundatzaileetako bat, eta baita aurreneko presidentea ere. Pepe hil eta berehala aldatu zioten izena lasterketari. Korrikalaria eta atletismo zale sutsua zen Pepe. Pareko gutxi zituen bere modalitatean. Ez zen ordea, horregatik bakarrik nabarmentzen; korrikalariei laguntzeko sena ere, barru barruan

zuen Pepek: Prudentzio Aierrari, Miguel Sukuntzari... lagundu izan zien bere ibilbidetan.

Club Atletico Urumea, urte batzuetan

Adarraga Memorialeko 70garren hamarkadan izan zuen dizdira gehien; 1973 eta 1977 bitarteko urteak izan ziren oparoenak. Senior mailan goi mailan zebiltzan korrikalari asko ikusi ziren Landaren: Mariano Haro, Pepe Haro, Santiago Delaparte, Carmen Valero... Urte haietan CD Hernani izateari utzi zion atletismo taldeak, azaldu dutenez, atletismorako dirurik ez zegoelako. Club Atletico Urumea izatera pasa ziren. Beraiek hartu zuten memorialeko antolatze ardura, eta korrikalari hobeak ekartzeko apustua egin zuten. Ez zuen ordea urte luzez iraun erronka horrek, berehala heldu baitzioten berriz bertako atleten alde egiteari.

40-50ko hamarkadan, atletismoa nagusi

Beti izan du indarra atletismoak Hernanin, baina 40-50ko hamarkadak izan ziren urte ederrenak. Zaletasun asko zegoen, nahiz eta orduan helduek bakarrik konpetitzen zuten. Bi ekipo zituen Hernanik: A eta B. Krosseko lasterketak bakarrik korritzen zituzten orduan eta gairapen garrantzitsuak lortu zituzten atleta hernaniarrek. Atletismoan aritzen zen emakume askorik ez zen garai haietan, baina Hernanik bazuen bat, ona, pertiga saltoan: Carmen Adarraga.



Pepe Adarragari 1920an ateratako argazkia. 1940an CD Hernaniko presidentea izan zen. Iratzen: Julian Erdozia eta Marcial Las

Umeekin lanean 80garren hamarkadan hasi zen CD Hernani. Migel Angel Garin, Baldomero Jimenez eta Manu Irastorza aritu ziren lan horretan, eskolekin elkartu eta atletismoa sustatzeko gogoz. Or-

dutik korrikalari on asko eman ditu CD Hernanik.

Atletismo pistari esker, modalitate guztiak

Azken urteetan atletismo pistak on asko ekarri dio atletismoari.

Kros atletikak Herriste behar mat


PISTAN

'ol sena
zitan

rnani sortu zuen Adarragak, Antonio Yeregi, Juan Otamendi, ial Lasicaberekin batera.

Kross hutsera dedikatzetik, atletismoaren modalitate guztiak egitera pasa da CD Hernani. Antolatzaileek diote, pisten aurretik, eskoletara jo behar izaten zutela, bertako materiala aprobetxatzera. Orain

ordea beharrezko guztia dute, eskura: materiala, lekua, distantzia egokiko pista, aldagelak... Atletismoa indarra hartzen ari da berriz ere Hernanin, eta egun 125 atleta inguruk osatzen dute taldea. ||



Adarragatar anai-arreben artean, Juan Bautistak izan zuen ibilbide oparoena atleta gisa.

Atletismora dedikatu ziren lau adarragatarrek, errekorrak

Jose Luis, Juan Bautista, Bernardino, Fernando, Carmen eta Agustin anai-arrebak kirolari sutsuak guztiak.

OINORDEKO ederra utzi zuten Luis Adarraga eta Benita Elizaranek. 12 seme-alaba izan zituzten, 12 adarragatar, urteen poderioz, kirolaren munduan zeresan haundia eman zutenak. Jose Luis, Juan Bautista, Bernardino eta Fernando atleta sutsuak izan ziren, eta lauek lortu zuten Espainiako errekorren bat. Carmen saskibaloiko jokalaririk internazionala izan zen eta Espainiako selekzioko kapitaina. Agustinek kirol batean baino gehiagotan izan zuen ibilbidea: eskubaloian, errugbian eta pala motzean; Australian bizi zela, squashean, munduko txapeldun izatera ere heldu zen, beterano mailan. Eta honen semea, Agustin, munduko hamabi jokalaririk onenen artean dago, kirol berean.

Juan Bautistak, ibilbide oparoena

Kirolerako fisiko oso ona zuten guztiak, baina bereziki nabarmendu zen Juan Bautista.

Londreseko joko olinpikoetan parte hartu izana izan zen bere karrera osoko momentu oparoena. 1948ean Wenbleyeko estadioan, Londresen, hartu zuen parte, eta minutu 1 eta 55 segunduko denbora egin zuen sailkapen proban. Momentu horretan ordea, ez zeuden arauak eskatzen zuten adina epaile kronometratzeko, eta Juan Bautistak egindako denbora ez zuten ontzat eman; hori bukatu zen Olinpiadetako ibilbidea.

Urbete geroako, Espainiako errekorra lortu zuen, 400 metroko hesi frogan 56 segundutan bukatuta; eta marka hori hobetu zuen urte berean. 800 metroko proban ere ez zuen parekorik izan Espainian, 1944, 1946 eta 1948 urteetan. Trenak harpatu zuen Juan Bautista, eta lesioak medio, utzi egin behar izan zuen atletismoa. Aurretik ordea, Espainiako beste errekor bat lortu zuen: 1000 metro, 2 minutu eta 31 segundutan. ||



Aro olinpikoak, Juan Bautistak ekarriak

1948an Londreseko Joko Olinpikoetan hartu zuen parte Juan Bautista Adarragak. Partehartze hori medio, ekarri zituen aro olinpikoak Hernanira. 1949garren urtean diseinatu zuen CD Hernaniren eskudu berria, oraingoa, eta orduan gehitu zizkioten aro olinpikoak.

TXOTX DENBORALDIA - 'GOZATUA HERNANIN' PLANA

Txotx garaian, menu berezia: mendibuelta, sagardogintza eta otordua

'Gozatua Hernanin' izena du planak, eta Hernaniko kultur ondarea modu atseginean ezagutzeko aukera ematen du. Aurrez egin behar da erreserba eta gutxienez 20 pertsonako taldea osatu behar da.

JOAN den igandean hasi zen Hernanin 2014ko txotx denboraldia. Sagardotegietara buelta egiteko ohitura tradizionala errotua dago herrian: menu bikaina jan eta nahi adina sagardo fresko edan. Ohitura honetatik haratago, turismoak, kulturak eta txotx garaiak bat egiteko saiakera bat bada azken urteetan. Horren harira, hiru planeko menu berezia osatu du aurten Gipuzkoako Parketxe Sare Fundazioak, Larre Gain sagardotegiarekin elkarlanean: *Gozatua Hernanin: sagardogintza, sarobeak eta trikuharriak*. Azaldu dutenez, Hernaniko kultur ondarea modu atseginean ezagutarazi nahi dute.

Mendi ibilaldi gidatua, Aiako parkean barrena

Mendi buelta gidatua da menuko aurreneko platera. Aiako Parke Naturalean mendi buelta antolatu dute, sailtasun gutxikoa. Saratseko leporantz abiatuko dira, ingurune paisaia kulturala zuzen-zuzenean ezagutzeko: sarobeak eta trikuharriak dira ondare honetako izarrak. Ibilbidea bi ordu ingurukoa izango da.

Bigarren parada, Larre Gain

Bigarren plateraz dastatzera, Larre Gain sagardotegira itzuliko dira. Bertan izango du helmuga, mendi bueltak. Sagardogintza izango da Larre Gainen, gai nagusia. Egingdako ibilaldian zehar sagardogintzarekin lotura zuzena duten zenbait gai landuko dituzte: sagastiak, sagarrondoaren zikloa... Larre Gaingo esperientzia ordea, haratago joango da: sagardoaren historia, egiteko prozesua, sagardoaren ezaugarri nagusiak, sagar jotzea, botilaratzea... azalduko dituzte bertan. Sagardora dedikatzen denak, edari honen funtsa zein den azaltzea izango da beraz, bigarren puntu honen helburu nagusia. Azalpen guztiak ordubete inguruan emango dituzte.

Otordua, sagardotegian

Eta ikasitako guztiaren ondorioa probatzea izango da menuaren ginda: sagardoa.



Saratxeta lepoko trikuharria; Hernanin asko daude, Akolan...

Larre Gain sagardotegian otordu batekin bukatuko da plana. Otordua bazkaria edo afaria izan liteke.

Denentzako modukoa

Otorduaz aparte, hiru ordu inguruko jarduera da *Gozatua Hernanin*. Antolatzaileek diote, edonork parte hartzeko moduko plana dela, eta beti ere, aurretik eskatuta, moldatu edo egokitu litekeela. Herritar guztie zuzenduta antolatu dute, eta baita hezkuntzara formalki dedikatzen ez diren taldeei ere, euskaltegi eta elkartei, esaterako.

Urte guztian, aukeran

Halako planek sagardotegi

«Plana herritar guztiei dago zuzendua. Sagardotegiko otorduaz aparte, guztira 3 ordu inguru irauten ditu 'Gozatua Hernanin' planak. Antolatzaileek diote, beti ere aurrez eskatuta, taldearen behar eta ezaugarrietara egokitzeko aukera badagoela».

garaian tiradizo berezia badute ere, *Gozatu Hernanin* plana urte osoan egiteko aukera dago. Urrian larunbatetan, goizez edo arratsaldean. Azaroan, abenduan eta urtarrian, asteartetik igandera, goizez. Eta otsailtik irailera, asteartetik igandera baita ere,

baina goizez eta arratsaldean (igandeetan ez da afaririk ematen). Azken bi kasu hauean, talde minimo bat osatzea eskatzen da, 20 pertsonakoa. Bestalde, gogoratu nahi dute jarduera hau banaezina dela, hau da, Larre Gain sagardotegian bazkaltzea edo

afaltzea ezinbestekoa dela.

Prezioa, adinaren arabera

Kostuari dagokionean, helduak 33 euro ordaindu behar dituzte: 28 euro sagardotegi menua eta kafea dira, eta 5 euro irteera. Umeen kasuan, prezioa 31 eurokoa da: 28 euro sagardotegiko menua eta 3 euro irteera.

Informazioa eta erreserbak

Jardueraren inguruan informazio gehiago nahi duenak, edo erreserba egin, hiru modu ditu: 943 49 50 69 edo 943 55 58 46 telefonora deitu; arditurri@gipuzkoamendizmendi.net edo www.gipuzkoamendizmendi.net. ■



Koadrilan elkartzeko guneak dira gazte lokalak; 20tik gora daude Hernanin.

UDALA - PARTEHARTZE PROZESUA MARTXAN

Gazte lokalen inguruko prozesua martxan jartzeko saioa, asteazkenean

Parte hartze prozesuaren barruan, bost saio egingo dira. Urtarrileko biak banatuta egingo dira, hau da: gazte erabiltzaileak eta eragileak batetik, eta bizilagunak, jabeak eta adin txikikoen gurasoak bestetik. Azkeneko hiru saioak elkarrekin egingo dituzte; otsailean izango dira. Saio guztiak Biterin, 18:30etan.

OHITURAK aldatuz joan dira, eta horrekin batera, baita ere gazteak elkartu eta ondo pasatzeko moduak ere. Azken urteetan gazte lokalen fenomenoak da, nabarmen hedatu den joeretako bat. Geroz eta gehiago dira, aisialdi tarte horiek pasatzeko, lokalak alkilatzen dituzten gazteak. Hori horrela, Hernaniko Udalak erabaki du prozesu partehartzailea martxan jartzea. Hausnarketa egin nahi da eta elkarbizitza oinarri hartuta, alde guztien arteko protokoloa adostu. Herritarren arteko elkarbizitza protokoloa da adostu nahi dena: gazteak, bizilagunak, jabeak, adin txikikoen gurasoak...

20tik gora gazte lokal daude Hernanin

Prozesu partehartzailearen aurkezpenean, Udalak argi utzi zuen gazte lokalen joera ez duela «arazo bezala» ikusten, baina «hausnarketa bat»

eskatzen duela. Hernanin 20 lokaletik gora erabiltzen dituzte gazteak, eta herriko auzo batzuetan besteetan baino gehiago hedatu dira; Lizeagan, esaterako.

Zein dira prozesu honen helburuak?

Prozesu partehartzailearen harira, lau helburu nagusi zehaztu ditu Udalak. Batetik, aipatu bezala, gazte lokalen fenomenoaren inguruko hausnarketa egin nahi da, gazte identitatearen definizioan jokatzeko duten papera aztertuz. Lokalen fenomenoaren inguruko ezagutza zabaltzea ere bada helburua, ikuspegi ezberdinak batu, eta osoago bat izateko asmotan. Baita ere, azterketa bat egin nahi da, lokalen baldintzak zein diren aztertu eta hausnarketa egiteko. Eta bukatzeko, hausnartu nahi da gazte lokalak sortzen duten elkarbizitzaren inguruan; hobetze-ko proposamenak landu nahi

dira, tartean egon daitezkeen gatazkak aztertuz eta soluziora bideratuz.

Protokoloa zehazteko, fase ezberdinak

Gazteen, bizilagunen eta lokal jabeen arteko protokoloa zehazteko fase ezberdinak jarriko ditu martxan Udalak, otsaila bitartean.

Aurreneko fasea Udalak berak egingo du: 0 fasea deitu diote eta diagnostikoa egitea izango da helburua.

Lehenengo fasean lanean ari dira orain: zenbat lokal dauden, non, zenbat ordaintzen duten, zein baldintza dituzten, zailtasunak...

Hirugarren fasea izango da partehartzailea. Aurreneko bileran, asteazkenean, gazteak elkartuko dira; eta ostegunekoan, bizilagunak, lokalak jabeak eta adin txikikoen gurasoak.

Eta azkeneko fasean, hiru bilera egingo dituzte, guztiak elkarrekin. Otsailaren 13an,



Gazte lokal asko garai bateko komertzioak dira.

Nolako da gazteen inguruko elkarbizitza? izango da gaia; otsailaren 27an, *Nolako elkarbizitza nahi dugu?* eta martxoaren 13an, *Elkarbizitza... hartu*

eta eman.

Bilera edo saio guztiak Biteri kultur etxean izango dira, arratsaldeko 18:30etatik aurrera. ■

TELEFONDAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK ● Egunez: Tanco URNIETA - Idiazabal, 39 - 943 550942 ● Gaeuz: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA ● GAUR Eguraldiak okerrera egingo du, batez ere, arratsaldetik aurrera. Ipar-mendebaldeko haizeak joko du eta zaparradak noiznahi botako ditu. Min.6° / Max.11°
● BIHAR Goizean euria egingo du, baina arratsalde-gau partean egoera hobetuz joango da. Elur-kota 600-700 m inguruan egongo da goizean. Ipar-mendebaldeko haize bizia. Min.4° / Max.9° (euskalmet)

ERAKUSKETA BITERIN - 'JOAN ETORRIKO BIDAIAK, RROM BIZITZA'

Errumaniako emakumeen bizitza eta arazoak beraien irudi eta ahotan

Erakusketa Biterin dago ikusgai, datorren larunbata bitartean. Adriana Villalonek eginga da, Donostiako Udala eta San Telmo museoarekin elkarlanean.

ERRUMANIAKO emakumeen joanak eta etorriak, hau da, bizitza biltzen duen erakusketa jarri dute Biterin. Zeintzuk dira emakume hauek? Asko dira Donostialdean bizi diren ijitu errumaniarrak, tartean, Hernanin eta Astigarragan. Hauen bizimodua eta honaino nola heldu diren erakustea da erakusketaren helburuetako bat.

Adriana Villalon da egilea, eta Donostiako Udalarekin eta San Telmo museoarekin elkarlanean osatu du erakusketa. Ikusgai egongo da Biterin, datorren larunbata bitartean.

10 panel, argazki eta informazioarekin

10 panelek osatzen dute erakusketa. Argazkiak eta informazioa uztartzen dira guztietan; eta emakumeen arteko elkarrizketak eta esanak ere, biltzen dira bertan: tartean, txikitako bizitza, egindako edo bukatu gabeko ikasketak, etxeko lanak, anai-arreba txikiak zaintzen pasatako orduak...

Diskriminatuta, urte luzez

Rrom edo ijitu errumaniarrak Europako bazter guztietan bizi dira, batez ere, Europa erdialdean eta mendebaldean. Historikoki, diskriminazioa eta esklusioa jasan behar izan

«Jaioterria utzi eta bizi baldintza hobeen bila aldegin behar izan zuten askok; hala iritsi ziren, Euskal Herrira».

«Emakumeen argazki eta esanak biltzen dira, hala nola, txikitako bizitza, egindako edo bukatu gabeko ikasketak, etxeko lanak, anai-arreba txikiak zaintzen pasatako orduak...».

dituzte. Errumanian bertan, 1864ra arte, esklabotzan eta zortasunean bizi behar izan zuten. Nazi erregimen garaian pertsegitutako herrialdea izan ziren. Bigarren Mundu Gerra eta gero, dispertsio politikak ezarri zituen Errumaniako Gobernu komunistak, eta rrom herrialdea onartzeko pausuak eman zituzten; lan munduan barneratu zituzten, hori bai, beti



Argazkiek eta esanek osatzen dituzte erakusketan jarritako panelak.

ere, kulifikatu gabeko lanetara. Gerora, 1989an egindako trantsizio erreformak medio, lanik gabe geratu ziren asko eta asko, baldintza oso kaxkarretan. Jaioterria utzi eta herrialde eta bizi baldintza hobeen bila aldegin zuten askok. Hala iritsi ziren, Euskal Herrira. ||

IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest, 4. DBHraino. Deitu: 659 658 427
Etxebizitza eguzkitsua salgai zentroan. Oso egoera onean, 90 m², 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Igogailua badu. Pana parkera begira. Oso polita. Deitu: 648 225 990
Pixua salgai zentroan, 4 gela, bi komun, sukaldea, egongela-jangela, 100m². Trastelekua eta garajearrekin. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

BERTSO BAZKARIA
IPINTZA SAGARDOTEGIAN

MAIALEN LUJANBIO

MENUA
Sarrerakoa
Bakailu entisalada epela
Legatz errea
Txuleta patatekin
Postrea
kafea

SUSTRAI COLINA

SARRERAK
Ikatz Tabernan
Ipintza Sagardotegian
688 811 724
ipintza@ipintza.com
facebook.com/ipintza.sagardotegia

30€

URTARRILAK 26
14:00etan

www.ipintza.com

ARALAR
TABERNA

GIRO EDERRA
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

URUMEA IKASTOLA HLHI

URUMEA IKASTOLAK "sarrera libreko eguna" antolatuko du bere eskaintzaren berri emateko.

Ikastola ezagutu nahi baduzue eta zuen zalantzak argitu, gonbidatuak zaudete.

EGUNA: OTSAILAREN 21A, ASTEARTEA
ORDUA: 17:00
LEKUA: GAY MUR ERAIKINEKO MUSIKA GELA

(Informazio gehiago ikastolako web orrian: www.urumea.hi.hozkuntza.net)